

BAT ZUK

20. ^{dek}korrika

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRUÑERA

PRENTSA OHARRA – PRENTSA OHARRA – PRENTSA OHARRA
nota de prensa – nota de prensa – nota de prensa

Korrika Kulturala, euskararen mundua zabaltzeko

Otsailaren 9an hasiko da Korrika Kulturala Gasteizen, Kepa Junkerak eta Sorginek emango duten kontzertuarekin. Antzerkia, bertsoak eta dantza ere izango dira. Sakelakoetarako aplikazioan kontsulta daitezke data guztiak

Korrika Kulturala aurkeztu dute gaur Gasteizko Europa jauregian, kultur emanaldien zikloa hasiko den lekuan bertan. Kepa Junkerak eta Sorginek emango dute zikloko lehen kontzertua, Europa jauregian bertan, otsailaren 9an.

Asier Amondo Korrika arduradunak eman du Korrika Kulturalaren berri. Horren bitartez, euskal gizarteari Korrikan zehar egiten duen "esfortzuaren eta lan militantearen atal txiki bat" eskaini nahi diote bueltan. Hori egiteko modurik onena euskal kultura sustatzea dela esan du Amondok. Gainera, Korrika Laguntzaile txartela dutenek % 10eko deskontua izango dute Korrika Kulturalaren emanaldietan.

Estreinaldien artean, Kepa Junkera & Sorginak taldearen "Maletak" ikuskizunaz gain, bestelako emanaldiak ere izango dira Korrika Kulturalean: Mikel Martinez eta Patxo Telleriak osatutako bikote artistikoak (Tartean Teatroa), zenbait musikarirekin bat eginda, "Ez dok hiru! Euskal musikaren benetako istorioa" errepasatuko dute taula gainean; azken edizioetako arrakasta errepikatu nahi dute Bertsokorrika bertso-emanaldi sortarekin, Bertsozale Elkartarekin elkarlanean; Kukai dantza-taldeak ikus-entzunezkoa eta dantza nahastuko dituen emanaldia prestatu du, "Oskara plazara" izenekoa; Beatriz Egizabal ipuin-kontalariak eta Ane Labaka bertsolariak "Erradikalak gara" ikuskizuna ekarriko dute; eta, nola ez, Pirritx Porrotx eta Marimotos pailazoan "Tipi-tapa, Korrika!" ikuskizun koloretsua.

Korrika aplikazioa

Korrika Kulturalaren agenda guztia bilduko duen sakelakoetarako aplikazioa ere aurkeztu dute agerraldian. Agendaz gain, 20. Korrika uneoro non dagoen jakiteko aukera ere emango du, geolokalizazioari esker. Akting enpresak garatu du, iOS eta Android gailuetarako.

Otsailaren 11n Korrikaren urtemuga-festa ospatuko dutela gogoratu du Amondok, eta euskaltzale eta Korrikazale guztiak Ficoba erakustazokara joatera gonbidatu ditu. Izen-ematea korrika.eus webgunearen bitartez egin daiteke. Kepa Junkeraren emanaldiarekin amaitu dute Korrika Kulturala aurkezteko agerraldia.

ARABA

Arana kalea 30, behea
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleten kalea 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



www.korrika.eus